# I ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA I

## Xedapenak eta Administrazio Ebazpenak

*Diputatuen Kontseiluaren Erabakiak*

**3.059**

**344/2006 ERABAKIA, maiatzaren 9ko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez, behin betiko onarpena ematen zaio Mañuetako udalerrirako egin den Ondasun Higiezinen gaineko Zergari lotutako hiri lurzoruaren mugaketari.**

Martxoaren 29ko 171/2006 Foru Aginduaren bidez, behin-behineko onarpena eman zitzaion Mañuetako udalerriko ondasun higiezinen gaineko zergari lotutako hiri lurzoruarenaren mugaketa berriari. Mugaketa hori planeamenduko ordezko arau berriak eta dagokien testu bateratua kontuan hartuz egin da; abenduaren 19ko 496/2003 Foru Aginduaren eta ekainaren 11ko 522/2004 Foru Aginduaren bidez onartu ziren arau horiek, hurrenez hurren.

Aipatutako arauaren xedapeneko 4. artikuluan, Mañuetako Udalari haren berri emateko agindua eman zen. Agindu hori 2006ko martxoaren 31n bete zen eta udalak 2006ko apirilaren 6an jaso zuen jakinarazpena.

Ondasun Higiezinen gaineko Zerga arautzen duen uztailaren 19ko 42/89 Foru Arauak 11. artikuluaren 4. paragrafoan hamabost egun ematen dizkio udalari egoki deritzona jakinaraz dezan.

Mañuetako Udalak ez du ezadostasunik adierazi hartutako ebazpenaren aurka.

Horregatik guztiagatik, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak proposatuta eta Diputatuen Kontseiluak gaia gaur bertan egindako bilkuran aztertu ondoren, honakoa

ERABAKI DUT:

Lehenengo.- Onarpena ematea Mañuetako udalerrirako egin den Ondasun Higiezinen gaineko Zergari lotutako hiri lurzoruaren mugaketari. Mugaketa hori planeamenduaren ordezko arau berriak eta dagokien testu bateratua kontuan hartuz egin da; abenduaren 19ko 496/2003 Foru Aginduaren bidez eta ekainaren 11ko 522/2004 Foru Aginduaren bidez onartu ziren arau horiek, hurrenez hurren.

Bigarren.- Aurrekoa gorabehera, kontuan hartuko da Ondasun Higiezinen gaineko Zergari buruzko uztailaren 19ko 42/89 Foru Arauak 2. artikuluko b) idatz-zatiko 1, 2 eta 3. puntuetan xedatutakoa, herriguneetatik kanpo hiri eraikuntzek hartutako lurzoruen tratamenduei dagokienez.

Hirugarren.- Erabaki hau Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALean eta lurralde historikoan gehien saltzen diren egunkarietan argitaratuko da. Gainera, 15 egun jarriko da jendaurrean, interesdun orok egoki deritzen erreklamazioak aurkeztu ahal izan ditzan. Izan ere, Mañuetako Udaleko bulegoetan jarriko da jendaurrean, halaxe xedatzen baitute Ondasun Higiezinen gaineko Zerga arautzen duen uztailaren 19ko 42/89 Foru Arauak 11. artikuluko 5. paragrafoan eta berau garatzen duen abenduaren 15eko Diputatuen Kontseiluaren 1080/1992 Foru Dekretuak 7, 8 eta 9. artikuluetan.

Vitoria-Gasteiz, 2006ko maiatzaren 9a.– Diputatu nagusia, RAMÓN RABANERA RIVACOBA.- Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.

## Disposiciones y Resoluciones Administrativas

*Acuerdos del Consejo de Diputados*

**3.059**

**ACUERDO 344/2006, del Consejo de Diputados de 9 de mayo, que aprueba definitivamente la Delimitación de suelo urbano sujeto al Impuesto sobre Bienes Inmuebles del municipio de Baños de Ebro.**

Por Orden Foral número 171/2006, de 29 de marzo, se aprobó con carácter provisional, la nueva Delimitación de Suelo urbano sujeto al Impuesto sobre Bienes Inmuebles, realizada para el término municipal de Baños de Ebro. La mencionada Delimitación de Suelo urbano se realizó recogiendo las nuevas Normas Subsidiarias de Planeamiento y su correspondiente Texto Refundido, aprobados por Orden Foral número 496/2003, de 19 de diciembre y por Orden Foral número 522/2004, de 11 de junio, respectivamente.

En el artículo 4º de la parte dispositiva de la referida normativa legal, se ordenaba su comunicación al Ayuntamiento de Baños de Ebro, disposición que se realizó con fecha 31 de marzo de 2006, siendo recepcionada por el Ayuntamiento de Baños de Ebro con fecha 6 de abril de 2006.

La Norma Foral 42/89, de 19 de julio, reguladora del Impuesto sobre Bienes Inmuebles, dispone en su artículo 11 apartado 4º, el plazo de audiencia al Ayuntamiento respectivo, cifrándolo en quince días, para que informe lo que estime oportuno.

El Ayuntamiento de Baños de Ebro no ha manifestado disconformidad alguna con la resolución adoptada.

En su virtud, a propuesta del Diputado Foral Titular del Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, previa deliberación del Consejo de Diputados, en sesión celebrada por el mismo, en el día de hoy,

ACUERDO:

Primero.- Aprobar la Delimitación de Suelo urbano sujeto al Impuesto sobre Bienes Inmuebles, realizada para el término municipal de Baños de Ebro, realizada de conformidad con las nuevas Normas Subsidiarias de Planeamiento y su correspondiente Texto Refundido, aprobados por Orden Foral número 496/2003, de 19 de diciembre y por Orden Foral número 522/2004, de 11 de junio, respectivamente.

Segundo.- No obstante lo anterior, hay que tener en cuenta lo establecido por el artículo 2º apartado b) puntos 1, 2 y 3 de la Norma Foral 42/89 de 19 de julio del Impuesto sobre Bienes Inmuebles,para el tratamiento de los suelos ocupados por construcciones de naturaleza urbana, situados fuera de los núcleos de población.

Tercero.- El presente Acuerdo será publicado en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava y en los diarios de mayor circulación del Territorio Histórico. Además se procederá a su exposición pública por un plazo de 15 días para que los interesados formulen las reclamaciones oportunas. La exposición pública se llevará a cabo en las Oficinas del Ayuntamiento de Baños de Ebro, tal y como establecen el artículo 11 apartado 5º de la Norma Foral 42/89, de 19 de julio, reguladora del Impuesto sobre Bienes Inmuebles y su posterior desarrollo reglamentario Decreto Foral número 1080/1992, del Consejo de Diputados de 15 de diciembre, en los artículos 7, 8 y 9.

En Vitoria-Gasteiz, a 9 de mayo de 2006.– El Diputado General, RAMÓN RABANERA RIVACOBA.– El Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.

*Foru Aginduak*

### HIRIGINTZA ETA INGURUMEN SAILA

**2.602**

**301/2006 FORU AGINDUA, apirilaren 19koa. Honen bidez, Hirigintza eta Ingurumen Saileko foru diputatuaren azaroaren 9ko 939/2005 Foru Aginduak ezarritako baldintzak betetzea onartzen da. Azken foru agindu horren bidez, behin betiko onartu zen Urkabustaizko ordezko arauen 6. xedapen-aldaketarako espedientea, hain zuzen ere, Izarrako 3. poligonoko 209. lurzatiari buruzkoa.**

AURREKARIAK

Hirigintza eta Ingurumen Saileko diputatuaren azaroaren 9ko 939/2005 Foru Aginduaren bitartez behin betiko onarpena eman

*Órdenes Forales*

### DEPARTAMENTO DE URBANISMO Y MEDIO AMBIENTE

**2.602**

**ORDEN FORAL 301/2006, de 19 de abril, en relación con la aceptación del cumplimiento de las condiciones impuestas en la Orden Foral 939/2005, de 9 de noviembre, de la Diputada de Urbanismo y Medio Ambiente, por la que se aprobó definitivamente el expediente de 6ª Modificación Puntual de las Normas Subsidiarias de Planeamiento del municipio de Urkabustaiz, referida a la parcela 209 del polígono 3 de Izarra.**

ANTECEDENTES

Mediante Orden foral número 939/2005 de 9 de noviembre de la Diputada de Urbanismo y Medio Ambiente, se aprobó definitivamente